



## 1 ZK.KO DEKRETUA.

Oiartzunen, 2012ko urtarrilaren 5ean

Gaia: Oiartzungo Udalaren “KAUSUA” izeneko 2.063.2 zk. herri onurako mendiko 11. eta 15. unadetan egurra moztea erabateko ustiaketa bidez kontratazio espedientea. Kontratuaren esleipena.

Alkateak 2011ko urriaren 5ean emandako 861 zk.ko Dekretu bidez, Oiartzungo Udalaren “KAUSUA” izeneko 2.063.2 zk. herri onurako mendiko 11. eta 15. unadetan egurra erabateko ustiaketa bitartez mozteko kontratazio espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria eta baldintza teknikoen agiria onartu zituen, jendaurrean zabaldu gabeko akordiozko prozedura bidez, eta jardunbidean parte hartzeko gonbidapena lau enpresei bidaliz.

Aipatu kontratazioan proposamenak aurkezteko epean bi enpresek aurkeztu dituzte proposamenak:

Proposamen zk.

3065

3124

Eskaintzailea

SMURFIT KAPPA NAVARRA SA

CENTRAL FORESTAL SA

BASO ZERBITZUAK SL enpresak prozeduran parte hartzeari berariaz uko egin dio eta BERDABIO BASOGINTZA SL enpresak ez du proposamenik aurkeztu.

Aipatu enpresek aurkeztutako 1 zk.dun kartazalak (Gaitasuna eta kaudimena) irekita, horien edukia aztertuta eta klausula administratibo berezien pleguan ezarritakoarekin alderatuta, proposamenetan zuzentzeko moduko akatsak antzeman ziren eta hiru egun balioduneko epea eman zitzaizen bi enpresei akats horiek zuzentzeko.

Emandako epe barruan, SMURFIT KAPPA NAVARRA SA enpresak eskatutako dokumentazio bat bera ere ez zuen aurkeztu, eta CENTRAL FORESTAL SA enpresak berriz, akats guztiak zuzendu zituen.

Ondorioz, SMURFIT KAPPA NAVARRA SA enpresak aurkeztutako proposamenak ez ditu klausula administratibo berezien pleguan ezarritakoak betetzen, ez baititu gaitasuna eta kaudimena egiaztatzen duten dokumentuak (1. zk.dun kartazala) aurkeztu.

CENTRAL FORESTAL SA enpresak aurkeztutako proposamenak klausula administratibo berezien pleguan ezarritakoak betetzen ditu, eta proposamen ekonomikoa honako hau izan da:

Kontratua honako prezio honetan burutuko du: 28.814,00 €, gehi %18ko BEZari dagokion 5.186,52 € .

Klausula administratibo berezien pleguaren 6. klausulan ezarritakoa jarraituz, kontratua esleitzeko parte-hartzailearekin negoziatu behar da. Irizpide bakarra preziorik onuragarrienarena izanda, CENTRAL FORESTAL SA enpresari negoziazioaren 1. zatian lortutako klasifikazioaren berri eman zitzaion, eta bigarren eta behin-betiko eskaintza ekonomikoa aurkeztea eskatu zitzaion (eskaintako eskaintza ekonomikoaren hobetze edo berretsitzea).



OIARTZUNGO  
UDALA

Horiek horrela, CENTRAL FORESTAL SA enpresak ondorengo behin-betiko eskaintza ekonomikoa aurkeztu du:

Kontratua honako prezio honetan burutuko du: 28.814,00 €, gehi %18ko BEZari dagokion 5.186,52 € .

Gaiaren inguruan Mendi eta Ingurumen teknikariak 2011ko abenduaren 12an txostena luzatu zuen, CENTRAL FORESTAL SA enpresari 34.000,52 eurotan (BEZ barne) esleitzeko proposamena eginez. Ingurumena eta Mendiak Batzordeak 2011ko abenduaren 13ko diktamenean adostasuna eman zion Mendi eta Ingurumen teknikariaren esleipen proposamenari.

CENTRAL FORESTAL SA enpresari esleitzea proposatzen da, zeinaren eskaintza 34.000,52.-eurokoa (BEZ barne) den, betiere pleguetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera mendi eta ingurumen teknikariak egindako eta espedientean jasota dauden balorazioetan oinarrituta.

2011ko abenduaren 20an Alkatearen 1099 zk.ko Dekretu bidez, Oiartzungo Udalaren "KAUSUA" izeneko 2.063.2 zk. herri onurako mendiko 11. eta 15. unadetan egurra erabateko ustiaketa bitartez mozteko kontratatzeko prozeduran alde batetik, SMURFIT KAPPA NAVARRA SA enpresak aurkeztutako proposamena ez onartzea erabaki zen, klausula administratibo berezien pleguan ezarritakoak betetzen ez dituelako, ez baititu gaitasuna eta kaudimena egiaztatzen duten dokumentuak (1. zk.dun kartazala) aurkeztu eta bestetik, aurkeztutako proposamenak klasifikatu eta proposamen ekonomiko onuragarriena CENTRAL FORESTAL SA enpresarena dela erabaki zen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.2 artikuluekin adostasunean hamar egun balioduneko epea eman zitzaion CENTRAL FORESTAL SA enpresari behin-betiko 1.440,70.- euroko bermea eratzeko eta dokumentazioa aurkezteko, eta hala egin du CENTRAL FORESTAL SA enpresak 2012ko urtarrilaren 2an.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espedientea bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, hurrengoa **ERABAKI DUT**:

1. Oiartzungo Udalaren "KAUSUA" izeneko 2.063.2 zk. herri onurako mendiko 11. eta 15. unadetan egurra erabateko ustiaketa bitartez mozteko kontratua CENTRAL FORESTAL SA enpresari esleitzea, 34.000,52.- euroko (BEZ barne) prezioan eta gozamen lizentzia lortzen denetik 6 hilabeteko gauzatze-epearekin.
2. Esleipendunak esleipenaren balio osoa horrela ordainduko du:  
Esleipenaren prezioaren %50 kontratua sinatzerakoan ordainduko da.  
Gainontzeko %50, ustiapena bukatu eta gero, hilabete bateko epean ordainduko da.  
Ordainketak KUTXAREN 2101 0060 00 0000 89367 k/k-ean egingo dira.
3. Kontratuaren formalizazioa esleipena jakinarazten denetik hurrengo hamabost egun



baliodunetan egingo da.

4. Erabaki hau jakinaraztea enpresa esleipendunari eta gainerako enpresa eskaintzaileei.
5. Esleipen hau Udalaren kontratatzaileen profileen argitaratzea.

Aiora Perez de San Roman Uria Alkate-Lehendakari And.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

